



URTAROEN ARABERAKO ARKITEKTURA

MERKATU ETA ADINDUEN BILGUNEA



PROIEKTUAREN GARAPENA - MAL 2018-2019

Ikaslea: Sara Truelsen
tutorea: Ula Iruretagoiena



Garatutako proiektua Laredok pairatzen duen biztanleri desorekatik abiatzen da. Proposamena prototipo bezela uler daiteke turismoak eta honi lotutako higiezinaren sektoreak herrian sortzen dituen urtaroen araberako desorekei aurre egiteko.

Laredoko HAPO -ak zabalpen eta lur eremu berrien okupazioan du oinarri. Egiten den proposamena berriz, herriak bere egituraren hutsune urbanoak aztertzea da. Hutsune urbanoen kategorizazio eta inbentario bat garatu eta haiei baten garatu da aurkezten den proiektu arkitektonikoa.

Hortaz, eskala ezberdinetan egindako lanen ondorioa da emaitza.

Sara Truelsen

AURKIBIDEA

01 SARRERA

LAREDO HIRIA

LAREDOREN BILAKAERA

02 DIAGNOSIA

HELDUEN HERRIA

HERRI ZENTRIFUGOA

LAREDOREN BIKOIZTEA

KOMERTZIO TXIKIEN GALTZEA

03 METODOLOGIA

EKIPAMENDUEN BERRANTOLAKETA

KOKAPENA

KATALOGO 01

KATALOGO 02

“HERRI ODONTOLOGIA ”
HUTSUNEAK

HIRI HUTSUNEAK DETEKTATZEA

HUTSUNEEN KLASIFIKAZIO ETA KUANTIFIKAZIOA

ORUBEEN EGOKITZAPENA ETA LORPENA

04 INTERBENTZIO EREMUA

MENÉNDEZ PELAYO KALEA
ETA MERKATU PLAZA

KOKAPENA ETA INGURUKO EKIPAMENDUAK

PLAZAREN ANALISIA

EREMUAREN BILAKAERA

AUKERATUTAKO PARTZELEN ANALISIA

1. PARTZELA: EKIPAMENDUAREN BERRANTOLAKETA

2:PARTZELA: BIZIBERRITZEA+ EKIPAMENDU BERRANTOLAKETA

3.PARTZELA: GAINJARTZEA

HIRIGINRZA XEHETASUNAK

05 PROIEKTUA

IDEIA ETA PROGRAMA

PROIEKTUAREN GARAPENA

DOKUMENTAZIO GRAFIKOA


 01 SARRERA

LAREDO HIRIA

LAREDOREN BILAKAERA

SARRERA

LAREDO HIRIA # Non dago Laredo?




Laredo ,Kantabria ekialdeko kostaldean kokatzen da, mendiak eta kantauri itsasoa inguratzen dutelarik. Bere kokapena dela eta, eskualdeko hiriburua dena, edertasun eta kalitatezko ondartzak eskaintzen ditu baita naturgune babestuak ere.

Laredoren existentzia, **757. urtean** finkatu zenetik, orain dela 30 urtera arte ekonomikoki, **ARRANTZA SEKTORETIK bizi** izan da. Zehazki, XV.mendean, Gastelako Erreinuak, Hiribildu izendatu zuen Laredo, Iberiar Kantauri itsasoan sortutako jarduera komertzial handi bat xurgatuz, XVI. mendearen erdialdera arte.

XIX. Mendearen bigarren erdialdean, kontserbak eta gatz-ontzien fabriken agerpena (XX. mendean zehar bigarren sektoreko, lehenak izango dira), herriaren iraupena eragin dute.

XIX.mendean, TURISMOA hiribilduan indarrez sartzen da, bere ekonomia eta itxura fisikoa eraldatuz. 1883. urtean, Erdi Aroko alde zaharraren inguruan, urbanizazio eremu handi eta zabalak esartzen dira eta arrantza-portuko lanei hasiera ematen zaie. Gerraosteko garaian (1960), nazioarteko turismoak, Laredo aurkitzen du, honekin batera, boom urbanistikoa eta frantziako turismoa iritsi ziren.

Gaur egun, Laredo-k bere hirigintza garatzen ari da eta **turismoa** bere **ekonomiaren iturri** nagusietako bat izaten jarraitzen du. 2006-an, 80 milioiko inbertsioa eta bost urte iraun zuen obra hasi zen, **portu arrantzale eta deportibo berria** garatzeko asmoz. Santander eta Bilbokoarekin batera, kostaldeko portu garrantzitsuenen bihurtuz.



1884




1930



2017

LAREDOREN BILAKAERA


Hirigintza handipen fase ezberdinak



XVII
Alde zaharra




1930
"Los terrenos" zabalgunea



1920
"El canto" zabalgunea



1964-ko HAPOA
3. zabalgunea



1934-1961urteen bitartean turista kanpotarrak Espainian

 **02 DIAGNOSIA**

HELDUEN HERRIA

HERRI ZENTRIFUGOA

LAREDOREN BIKOIZTEA

KOMERTZIO TXIKIEN GALTZEA

DIAGNOSIA



URTAROEN ARABERAKO ARKITEKTURA # Zer da?

Laredoko herriak pairatzen duen biztanleria desorekara moldatzen den arkitektura da.

Industria turistikoa eta higiezinaren sektoreak eratu-ako hirigintza eta gizarte desorekari aurre egiteko tresna da.

Estrategia honek, HAPO-ak proposatutakoari alternatibak esploratzea du helburu. Hiri hutsuneak erabilia, periferian planteatzen den zabaltzea, herrian zentrifikatzea du helburu, hirigintza misto bat garatuz, zeinetan ekipamenduak, etxebizitzak eta industria txikiak BAT egiten duten.

ERABILERA MISTOA HIRI HOBEKUNTZA TRESNA GIZA # Helburua

Hiri mixto, konpaktu eta zentzuzkoak, tokiko merkataritzaren, erabilera ezberdinen eta gizarte klase ezberdinen alde egiten duen hirigintza.

XX. Mendean zehar, hiri modernoak ez du trinkotasun eta nahasketa hau ekoizteko gai izan. Gainera, iraganetik jasotako hiriguneetan tratu txarrak ere egin ditu.

Alabaina, ehun mistoak eta trinkoak dira zentralitatea sortzeko gai diren bakarrak, eta horregatik turismoaren industria edo higiezinaren merkaturatu batoratzen dute.

Laredo erdialdearen eta alde zaharraren hiri ehunak, baditu oraindik hutsune ugari. Hutsune hauek, orain arte garatu den hirigintza aldatzeko aukera paregabeak dira.

Erabilera erresidentzial publikoa, komertzio eta ekipamendu publikoak bat egiteko aukera alegia.




HELDUEN HERRIA # Gazteen emigratzea

Turismoak eta honek dakarren eraikuntzaren boom-ak, etxebizitzaren prezioak izugarri igotzea eragin du, Laredoko jende gazteak inguruko herrietara emigratzea eraginez. Gazteek alde egitekoan, biztanleriaren batz bestekoa zharkitu da, demografia desoreka bat sortuz.



HERRI ZENTRIFUGOA # Gizartekotasunaren galtzea eta Kotxearen menpekotasuna

Azken urteetako hirigintza zentrifugoa, hiriko elementu guztiak zatika kokatu ditu: Etxebizitzak, ekipamenduak, aisiguneak, supermerkeak, industria... Hiri multifuntzional mixtoak alde batera utzita.




LAREDOREN BIKOIZTEA # Errealitatetik kanpo dagoen plana

Laredoren biztanleria finkoa eta herriak duen azalera eraikiaren arteko desoreka haundituko duen plana proposatzen du Udalerriak. Urtaro osoan erabiltzen diren etxebizitzaren kopuru bera planteatzen du plangintzak periferian.



KOMERTZIO TXIKIEN GALTZEAREN # Arrantza eta nekazaritza ekologikoa

Udako biztanleria hazkundera, periferian eskala handiko supermerkatuak kokatzea eragin du, jendea kotxea hartzea behartuz eta herriak duen komertzio txikiari kaltetuz.



HELDUEN HERRIA



Gazteen emigratzea

Biztanleriari dagokionez, neguan, alde zaharreko eta inguruko auzokideek bakarrik bizi dira Laredon, udako egoitzaz sortutako hazkundera, biztanlerik gabe geratzen bait da, bertan dagoen komertzio kopuru txikia ere, neguan bere ateak izten.

Udan berriz, jendez betetzen da, **12.299 biztanle izate-tik, 200.000 biztanle izatera** pasatzen da.

Turismoak eta honek dakarren eraikuntzaren boom-ak, **etxebizitzaren prezioak** izugarri **igo**tea eragin du, **Laredoko jende gazteak, inguruko herrietara emigratzea eraginez**. Gazteek alde egiterakoan, biztanleriaren batz bestekoa zaharkitu da, **demografía desoreka** bat sortuz.


Bost udalerrietako **ETXEBIZITZEN** batez besteko salmenta **PREZIOAK** aztertzen baditugu, datu hauek lortzen ditugu:

• Ampuero	—
• Barcena de Cicero	1.371 € / m2-ko
• Colindres	1.429 € / m2-ko
• Laredon	2.044 € / m2 -ko
• Limpiasen	1.251 € / m2-ko


Laredo, **Kantabriako bigarren herri garestiena** da etxebizitza-salmenten batez besteko prezioari dagokionez.

Horrez gain, **urte osorako ALOKAIRUAK** aurkitzea **zaila** egiten da, jendea udan alokatu nahi delako, prezio altuan nozki. Beraz, jende gazteak hurbileko herrietara joaten hari da, non etxebizitza berriak eta prezio onean lortu ditzakete.

Laredoko Babes Ofizialeko etxebizitzak, prezio oso altuan alokatzen dira, beraz, haien funtzioa ez dute betetzen.



Inguruko udalerrietako biztanleriaren hazkundera positiboa da, Laredon izan ezik. Horrek, eskualdean hazkundera begetatiboa edo migrazio hazkundera bat eman dela azalera du.



Eskualdearen hazkundera begetatiboa positiboa da, Laredon izan ezik.

Beraz, Laredon, eman den **jaitziera begetatiboa**z gain, **migrazioen jaitziera** ere eman dela ondorioztatu daiteke, izan ere, biztanleria osoaren galera (-469 biztanle), jaitziera begetatiboa (-418 biztanle) baino handiagoa delako.

GAZTE TASA

Year	Tasa	Colindres	Limpias	Ampuero	Cicero
2005	%10,98	%15,80	%15,70	%12,63	%12,50
2012	%11,69	%16,65	%15,84	%15,46	%15,55
2016	% 10,87	%15,38	%15,70	%15,38	%16,43

ZAHARTZE TASA

Year	Tasa	Colindres	Limpias	Ampuero	Cicero
2005	%19,15	%13,24	%17,77	%19,04	%18,23
2012	%23,49	%15,26	%16,21	%18,66	%15,64
2016	% 25,32	%15,38	%17,87	%20,23	%16,68

Bi tasak konparatuz eta konbinatuz, Laredo-n bakarrik ematen da gazteen tasa jaitziera eta zahartze tasaren haunditze bat aldi berean. Izan ere, eremu honetako **demografía desoreka** garrantzitsua erakusten duen udalerri bakarra da. Honek ez du sentzurik, kanpo faktoreak, esku hartzen ez badute behintzat.

Ukaezina da **biztanleria gaztearen** eta haurren arteko **migrazioa** gertatu dela, hazkundera begetatiboa kaltegarria izan baita. Udalerriaren adinekoak geratu dira, dagoeneko euren etxeak dituztela edo erosteko botere ekonomikoa nahikoa dutelarik, beste bat erosteko.


HERRI ZENTRIFUGOA

Gizartekotasunaren galtzea eta Kotxearen menpekotasuna

Azken urteetako hirigintza zentrifugoa, hiriko elementu guztiak zatikatuta utzi ditu: Etxebizitzak, ekipamenduak, aisiguneak, supermerkeatuak, industria... Hiri multifuntzional mixtoak alde batera utzita.

Gizartea bateratu egiten dituzten eremu hauek, etxebizitzetatik aldentzen badira, gizartekotasuna galdu egiten da. Horrez gain, kotxearen erabilera handitu egiten da, izan ere, Laredon, izugarriko trafikoa eratzen da herritik irten eta sartzeko.

Laredoko erdigune eta alde zaharra husten hari den bitartean, plangintzak



Industria eskasa geratu da laredortik gertu. Lehen kontzerba eta gatz ontzien fabrika ugari zeuden herri barruan, hala ere inguruetara mugitu dira, espazio gehiagoren bila. Gaur egun erdiguneko orube hoiak hutsik mantentzen direlarik

Gaur egun, industria eta merkataritza jarduerak garatzeko espazio falta dago, lurzoru hiritarrean. Beraz, herri zentroarekin konexio ona duten lurak bilatu beharko lirakeke.

Hainbat faktore eragiten dute, Laredo herri resili-ente bat ez izatea, batetik, XIX. mendean sortu zen hirigintza asko baldintzatzen du; etxebizitza blokeak, kuadrakula ortogonal batean kokatu ziran, inongo ekipamendu publiko zein aisigune sortzeko estrategiak pentsatu gabe. Egoitzak nagusitu ziran, turismoari erantzuna emanez, eta ekipamenduak aldiz erdigunean edo kanpoaldean kontzentratu ziran bakarrik.

Eskualdeko hiriburua izanik, inguruko udalerriei zerbitzua eman behar dio, hori dela eta, urbanizatu-ako eremuaren perimetroan: hospitalea, estadia, polikiroldegi eta ikastetxeak kokatzen dira.

Ekipamendu gehienak herri zentroan kokatzen dira, neguan bizirik irauten duen zonaldean alegia. Beraz, ekipamendu hauek neguko biztanleak asetzeko tamaina dute.

Hori dela eta, udan herriak eskeintzen dituen guneak eskaz geratzen dira.

Ekipamendu ugari egon arren, programak eraikin ezberdinetan zatikatuta daude espazio faltagaitik. Horrek, inolako harremana ez duten eremuak partekatzea eraman du, askotan funtzionaltasun a eta behar nagusiak zeintzuk diren alde batera utzita.

Izan ere, helduak nagusi diren herri batean, elkartzeko duten tokia oso kazkarra, egoera txarrekoa eta partekatu beharrekoa da.

Herriak ezin du ekipamendu guztiak jasan, hori dela eta zenbait zerbitzu izten ari dira edota erabilera gabe geratzen dira:

Udalerriko igerilekua, merkaturia "berrria", ikastetxeak, estadia...

LAREDOREN BIKOIZTEA



Errealitatetik kanpo dagoen plana

Laredoren hirigintza garapena aztertu ondoren, hedapen hau ildo beretik doala ikus daiteke, batetik, natur ballabideak suntzituko direlako (nekazaritza-gune nagusia bait da) eta bestetik **Laredoren biztanleria finkoa eta duen azalera eraikiaren arteko desoreka** kontuan izanik, plangintza honekin gehiago haunditu da.

Datuak kontuan izanik, **gaur egun urtaro osoan erabiltzen diren etxebizitzak (4.705) kopuru bera planteatzen du** plangintzak (5.168) etorkizunerako. Datu hauek argi usten dute Plangintzaren **helburua errealitatetik kanpo** geratzen dela, berriro ere, eraikitzeko soramena praktikan jarri.

GAUR EGUNEKO EGOERA / DATUAK

EGUNGO ETXEBIZITZA KOPURUA	16.324
+ ETXEBIZITZA BETEA	
Urtaroko etxebizitzak	4.705
Udako etxebizitzak	10.688
+ ETXEBIZITZA HUTSAK	928

ZER PROPOSATZEN DU 2015-eko HAPO-ak JENDE GAZTEA BUELATZEKO?

UDALERRIAK EMATEN DUEN SOLUZIOA

HAPO-ak, sektore bakoitzeko etxebizitza-erakuntzaren % 39,89-a **babes publikoko etxebizitza** rako esleitzen ditu.


+ Hortaz, proposatzen diren **5.168 etxebizitzetatik, 2.175, babes publikorako** izango dira. Urteko egoitza hauek, inguruko udalerriek duten prezio antzekoa izango dute.

Horrez gain, gazteen eskaeraz gain, bi eskaera gehiago iaurrekusi dira:

+ **Urtaroko egoitzen eskaria** dago, inguruko bizilagunengandik. Bilboko metropoli eremuak milioi bat biztanle ditu, kontuan izanik, % 5-ak 75 km-ko erradio batera mugitu daitezkeela, ondorioztatu daiteke biztanle horien % 1,25-a, hau da, **Bilboko 16.600 biztanleek** Laredo eskualdea aukeratu dezakete egoitza bezela. Hurrengo 12 urteetan, 4.166-5.533 etxebizitza berri aurrekusten dira.

+ Inguruko bisitarien etorrerarekin, eraikiko diren etxebizitzak % 61,76-a **libreak** izango dira, **3.513** etxebizitza zehazki.

H.A.P.O-ren arabera, ETORKIZUNEAN:



KOMERTZIO TXIKIEN GALTZEA





Arrantza eta nekazaritza ekologikoa

Laredo, arrantzatik bizi izan da beti, turismoa herrira sartu izan den arte.

Gaur egun, HIRUGARREN SEKTOREA da diru iturri nagusia. Gero eta komertzio txiki gehiago zabalitzen dira, udako jendeari zerbitzua emateko, hala ere, neguan, batzuk zarratu egiten dute, erosle faltagaitik eta besteak ahal duten bezela bizirautean dute.

Udako biztanleria hazkuntzarekin, komertzioak txiki geratzen dira. Horrek, kanpoaldean, eskala handiko supermerkatuak eratzea eragin du, jendea kotxea hartzea behartuz eta herriko komertzio txiki konpetentzia sortuz urteko urfaro guztietan (nagusiki neguan).

Horrez gain, kontuan izan behar da, eskualdeko hiriburu dela, hortaz, inguruko udalerriei zerbitzua ematen diote komertzio handi horiek ere.



Laredoko merkatua, elikagai ekologiak (km 0) saltzen ditu 1903. urtetik. Barazkiak, okela, loreak... saltzen zituen bere garaietan eta arraina berriz, alboan zegoen orubean, kalean saltzen zen. Merkatua txiki geratu zenez, 1970. urtean alboko orubean, merkatu berri bat eraiki zen, zeinetan arraindegia nagusi zen. Hala ere, ez zuen arrakasta handirik izan eta beste erabilera batzuk eman zaizkio honi. Gaur egungo supermerkatuek lehia handia suposatzen dute eta horrez gain, udalak ez du merkatua sustatzeko interes handirik.

Saltzaileak gehienbat helduak dira, gaur egun, merkatuko 5 postu utzik izanez, helduek jubilatuta direlako. Udalak dirua lortzeko helburuarekin, postua alokairu beharrean, saldu nahi ditu eta horrez gain hilabeteko alokairu bat ordaindu, beraz, postu horiek utzik daude.

Udalerriarren nortasun arrantzale eta agrikola galtzear dago, komertzio txikiak bizirauteko ekimenik garatu ezean.



LEHEN SEKTOREAN berriz, eskualdeko inbertzio handiena egin da (80 milioi), **Laredoko kirol eta arrantza portu** berria. Bi helburu nagusi zeuden, batetik ekonomia potentziatzea (kirol portuarekin) eta bestetik nagusiena, arrantzaleek betidanik eskatu zuten arrantzarako portu berri bat, itsas-ontziek beti arean trabatuta geratzen bait ziren.

Praktikara eramateko orduan, herriaren tamaina eta beharrak ez ziran kontuan izan, arrantza portua txikia geratuz. Gaur egun, eraikin berri hauek moldatzeaz daude. Arrainak saltzen duten eraikina (Cofradia de pescadores) oso txiki geratzen da arrantza denboraldian.

Beraz, gaur egun, kirol portua izugarri handi geratzen da herri-aretzako, herriari inolako zerbitzurik eman gabe, berriro ere, udako turismoari lehenetsua emanik.



Portu zaharra

Portu berria

03 METODOLOGIA

EKIPAMENDUEN BERRANTOLAKETA

“HERRI ODONTOLOGIA ”
HUTSUNEAK

KOKAPENA
KATALOGO 01
KATALOGO 02

HIRI HUTSUNEAK DETEKTATZEA
HUTSUNEEN KLASIFIKAZIO ETA KUANTIFIKAZIOA
ORUBEEN EGOKITZAPENA ETA LORPENA

METODOLOGIA

EKIPAMENDUEN BERRANTOLAKETA # misto, konpaktu eta funtzional

Herriak dituen arazo nagusietako bat, ekipamenduak dira. Ekipamendu ugari daude, baina gehienak ez dute herritarrei zuzendutako beharrak asetzen.


Eraikin gehienek, erabilera aldaketan ondorioz, aldaketa nabarmenak sufritu dituzte, eraikinak oso zatikatuak eta funtzio jakin bat izan gabe geratu dira. Eraikinak askotan, abandonatuz eta bigarren mailako erabilerak sartuz.

Herritarren beharrak asetzeaz gain, ekipamenduen udan datorren jendea berenganatzeko aukera izan behar dute. Hori dela eta, eraikinak prest egon behar dute, erabilera, okupazio eta tamaina aldaketarako. Urtaroa, faktore garrantzitsu bezela jokatu.

Hori dela eta, malgutasuna eskeintzen duten egiturak izan behar dituzte:

- Aukera ezberdinak ematen dituen tipologia
- Gehitu eta kendu
- Arina eta transparentea
- Eraikuntza erraza eta industrializatua
- Birziklagarria eta inguruarekiko errespetoa duena
- Okupazio aldaketa /tenporala

1. hiriko **EKIPAMENDUAK**
2. ekipamenduen **KATALOGOA / ANALISIA**



HERRI ODONTOLOGIA "HUTSUNEAK" # hiri sarearen lanketa

Herri zentroan aurkitzen diren hutsuneak, H.A.P.O-ak planteatzen duen zabalkuntzari alternatiba bat suposatuz dezakete.

Hiri kirurgia mota honekin, hiri sarean aurkitzen diren hutsune puntualen interbentzioa landuko da, esparru ugarietan onurak ekarritik.

Batetik, ERAIKUNTZAN, etxadien sendotzea ekartzeko delako, bestetik, HIRIGINTZAN, izan ere, eraikiko den bolumena, fatxada lerroa definituko delako eta horrenbestez espazio publikoa ere. Azkenik, lanketa SOZIALA ere ematen da, hutsunea, eremua aktibatuz dezaketen erabilerekin okupatu daitezkelako.

Hutsune hauek, aukera paregabea dira, herri zentroan industria txikiak berriro ere sartzeko eta gazte eta familientzako etxebizitza duin eta ekonomikoak planteatzeko.


Gaur egun, hiri hutsune abandonatuak ikustera behartuta gaude gure hirietan, ikuspegi aldaketa bat ematera bortzatuta gaude:

Zer nolako aukera eta onurak emango litzuzke, 10 urtez itxita egon diren orubeak, espazio publikoa bilakatzen derrigortuta ikusiko balira?

Horrez gain, eraikuntza industrializatu, malgu, ziku, azkarra... eraikitzen aukera dugu gaur egun, honek, aukera ugari ematen ditu orain arte proposatu den hirigintzari itenbide bat emateko.

Hutsuneak detektatu, klasifikatu eta kuantifikatu dira, zenbat metro karratu libre dauden definitzeko. Bestetik, orube hauek betetzeko egokiak diren zehaztu beharko da. Azkenik, orubearen lorpenerako beharrezkoak diren ekintzak zehaztu beharko dira.

1. hutsuneen **DETEKTATZEA**
2. hutsuneen **KLASIFIZAZIO ETA KUANTIFIKAZIOA**
3. hutsuneen **EGOKITZAPENA ETA LORPENA**




metodologia >> ekipamenduen berrantolaketa >> ekipamenduen kokapena

Ekipamendu eta zerbitzuak N° ▶ ■


Hutsuneak ■

EKIPAMENDUEN KOKAPENA
#



EKIPAMENDUEN KATALOGOA

#



Nautikoa 01


Erabilera



Oruberaren Azalera
Egoera

19.120 m2
Ordenazioz kanpo / barku barik

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



Hospitalea 02

Erabilera





Eskualdeko Hospitala

Oruberaren Azalera
Egoera

23.700 m2
Ona

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



Udalerriko Estadioa 03


Erabilera



Oruberaren Azalera
Egoera

30.500 m2
Ona

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



Hezkuntza Bereziko zentroa 04

Erabilera

Oruberaren Azalera
Egoera


5.090m2
Ona

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



HHZ /LH Pablo Picasso 05


Erabilera



Oruberaren Azalera
Egoera

Haurreskola/
Lehen hezkuntza
4.400 m2
Ume eskas

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



Insero 06

Erabilera



Oruberaren Azalera
Egoera

9.295 m2
Ona

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



HHZ /LH Villa del Mar 07

Erabilera



Oruberaren Azalera
Egoera

Herriari zerbitzuak eskeini
Beste udalerriei zerbitzua
4.400 m2
ona

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



EKIPAMENDUEN KATALOGOA


#

**Bernardino de Escalante
Institutua 08**

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 9.700m²
hobetzear

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua





**Fuente Fresnedo
Institutua 09**

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 5.189m²
txikia

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua




**Polikiroldegia eta
igerilekua 10/11**

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 11.311m²
igerilekua itzi da

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua




**Udaletxea / polizia 13
Epaitegiak 12**

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 1.900 m²
Ona

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



Bus geltokia 14

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 2.470 m²
Ona

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua




Kultur etxea + parkea 15

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 2.600 m²
Zaharkitua
Liburutegia txiki geratu

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua




Merkatu "berria" 16

Merkatu zaharra 17

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 1.330 m²
merkatu "berria" zarratua

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



Elikagai ekologikoak




Udaletxe zaharra 18

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 438 m²
zaharberritzen

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



438 m²
zaharberritzen




Udaletxe zaharra 19

Erabilera

Oruberaren Azalera Egoera 1.133 m²
irisgarritasun zaila

Erabilera maiztasuna Uda
Erabilera maiztasuna Negua



1.133 m²
irisgarritasun zaila



HIRI HUTSUNEAK DETEKTATZEA
betetzea, REhabitar, gainjartzea




HUTSUNEEN KLASIFIKAZIO ETA KUANTIFIKAZIOA
betetzea, biziberritzea, gainjartzea

“BETETZEA”
geldirik dagoen hutsunea



Medianerei atzikitzea
horma-itsuen kontra eraikitzea




301.495 m²
eraikigarri

“BIZIBERRITZEA”
eraikia dagoen hutsunea



Jarduera eta erabilera gabeko eraikinak dira
Hutsune hauek, gehienetan altueran hasteko aukera ematen
dute ere.

Erabilera mixtoak lortzeko aukera eman




15.589 m²
berriro okupatu eta gehitu daitezkeenak

“GAINJARTZEA”
altzatu daitekeen eraikina



Eraikijarritasuna agortzea
Erabilera duen eraikin bati, solairuak gehitzea



20.740 m²
gehitu daitezkeenak

HUTSUNEEN EGOKITZAPENA ETA LORPENA
ekonomia eta legalitatea

HUTSUNEEN EGOKITZAPENA

Hutsunearen betetzeak bideragarria izango den konprobatu beharko da:

Bidegarritasun ekonomikoari dagokionez, zenbateko etekinak aterako diran jakin beharko da, horretarako, zer nolako erabilerak barneratuko dituen eraikinak definitu beharko dira. Era horretan jakingo dugu ea, jabegoei konpentzazioak ordaindu ahal izango diogun edota trukeren bat gauzatzeko aukera izango dugun (fatxada beritu, komunikabide berriak egin, , eraikin baten altzatzean adibidez.)

Bestetik, konprobatu beharko dugu ea existitzen den eraikina, altzatzan den eraikina jasango duen erre-
fortzurik gauzatu gabe. Beraz, eraikuntzaren bider-
agarritasuna funtzeskoa da.

Azkenik, legeak eta ordenantzak betetzen direla konprobatu beharko da.



HUTSUNEEN LORPENA

Herri zentroan hutsuneak detektatu ondoren, hurrengo pausoa, hutsune horien lorpena izango litzateke.

Helburua, lurzorua okupazioa lortze da, aldi baterako edo behin betiko ahal bada. Aldi baterako orubeak, oso baliagarriak izan daitezke ere ain alda-korra den herri batean.

Partzela publikoen kasuan, alde batetik, udalak eskura dituen legezko tresna guztiak aprobetxatu beharko dira, ehun finkoetan lurzorua lortzeko. Bestetik, aldi berean, udal ordenantzak egungo gaitasunak handitzeko sustapeneko lege eta planifikazio aldaketak egin beharko dira.

Partzela pribatuen kasuan, jabeei jakinarazi beharko zaie, partzela pribatuek dakarren erantzunkizun sozialaren inguruan. Borondatez, espazio hauek eskeintzekotan, konpentzazio neurriak egongo dira, bestalde neurri zuzentzaileak hartu beharko dira.



04 INTERBENTZIO EREMUA

MENÉNDEZ PELAYO KALEA
ETA MERKATU PLAZA

AUKERATUTAKO PARTZELEN ANALISIA

KOKAPENA ETA INGURUKO EKIPAMENDUAK

PLAZAREN ANALISIA

EREMUAREN BILAKAERA

1. PARTZELA: EKIPAMENDUAREN BERRANTOLAKETA

2.PARTZELA: BIZIBERRITZEA+ EKIPAMENDU BERRANTOLAKETA

3.PARTZELA: GAINJARTZEA

INTERBENTZIO EREMUA

URTAROEN ARABERAKO ARKITEKTURA # Metodologia praktikan jarri

Komentatu bezela Laredo erdialdeadeko hiri ehunak, baditu oraindik hutsune ugari. Hutsune hauek, ehun misto eta trinkoa lortzeko aukera paregabeak dira.

Hori dela eta, interbentzio eremu bezela Laredoko Menéndez Pelayo kalea eta Merkatu plaza hartuko dira.




MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA # Interbentzio eremua

Portua eta herriko merkatua lotzen duen Menéndez Pelayo kalea eta merkatu inguruan sortzen den plaza aukeratu da interbentzio eremu gisa. Garrantzi handiko espazio publikoa izan da beti, portutik ateratako merkantzien garraioa eta elikaduren sal-erostetarako ahalbidetu duen kalea bait da.

Gaur egun kontsumo lokalerako dendak eta merkatu ekologikoa bertan kokatzen dira oraindik. Diagnostikoan ikusi bezela gero eta ahulago bihurtzen ari direlarik.

Proiekturako aukeratu diren hutsune eta ekipamenduak zehaztu baino lehen, interbentzio eremuaren analisi bat egin da:

1. Kokapena eta inguruko ekipamenduak
2. Plazaren analisia
3. Eremuaren bilakaera



AUKERATUTAKO PARTZELEN ANALISIA # Hutsune + ekipamendu berrantolaketa

Merkatu plaza inguruan kokatzen diren hiru partzela landuko dira hutsuneen lanketa eta ekipamendu berrantolaketa eredu gisa.

1. partzela: Merkatu ekologikoa

Metodologia: Ekipamendu berrantolaketa

2. partzela: Hutsunea - eraikia dagoen hutsunea (ekipamendua)

Metodologia: "biziberritzea" + Ekipamendu berrantolaketa


3. partzela: Hutsunea - altzatu daitekeen eraikina (komertzioa)

Metologia: "Gainjartzea"



>> interbentzio eremua >> Menéndez Pelayo kalea eta Merkatu plaza >> kokapena eta inguruko ekipamenduak

MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA
Kokapena eta inguruko ekipamenduak





Hiru ekipamendu nagusi kokatzen dira plaza inguruan. Hirurak, funtzio nagusiak hartzen dute bere baitan beraz, bilgune puntu garrantzitsua da.

Merkatu ekologikoa, merkatu plazan eraikinik deigarriena da, bere kolore eta forma ekleptikoengaitik.

Adinduen eguneko zentroa, hasieran merkatu funtzioa zuen, gaur egun behe oina besterik ez da erabiltzen adinduen bilgune puntu bezela. Egoera kazkarrean aurkitzen da eraikina.



Kultur zentroa, erabilera ugari hartzen ditu bere baitan eta askotan txiki geratzen da.



MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA
Plazaren analisia

Menéndez Pelayo kalea, alde zaharra eta Laredoko lehenengo zabalgunearen (1920) arteko muga argia da. Kalearen alde batera alde zaharreko eraikuntzak aurkitzen dira Behe + 2 solairu dutenak eta bestaldera behe + 5-eko eraikuntzak azaltzen dira, lehenengo etxe irlak sorturik.




Hiri sekzioa aztertutik, argi ikusten da "Merkatu Plaza" garai ezberdineko eraikuntzak batzen dituela eta "Adinduen zentroak" (1970) bi garaiko eraikuntzen arteko lotura edo muga lantzen saiatzen dela.



MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA # Eremuaren bilakaera

1200. urtetik aurrera, Gaztelako erregea zen Alfonso VIII-ak, Laredo Foru bihurtu zuenetik, hiriko hazkunde ekonomiko eta demografiko nabarmena eman zen herri arrantzalean. Itsas Villa bat izatean, hiri-hedapenean eta birmoldaketetan islatuta ikusi zan.

Laredo herriaren lehenengo eraikuntzak, itsasotik babestuak kokatzen dira muino baten gainean. Sei kale ortogonal definitzen dituzte erdi aroko alde zaharra, harresi batek inguratzen dituelarik. Harresitik kanpo landa eremuak, hondarra eta XIII.mendean eraikitako portua ageri dira.





MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA # Eremuaren bilakaera

Errebalaren sorrera:

Garapen ekonomiko eta demografikoak herriaren hedapena ekarri zuen harresitik kanpo. Lehenengo eraikuntzak harresiaren kontra eraikiko dira eta behin harresia okupatua zegoelarik, landa lurretan eraikiko dute lehen jauregi eta monastegia.


Alde zaharraren tamaina ia bikoiztu egingo da, hala ere hiri ehuna ez da ain dentsoa izango, eraikuntzak eta hortuak tartekatzen direlako.

Udaletxea ere eraikiko da, gerora, Menéndez Pelayo kalea bihurtuko den kale fatxada definituko duelarik. Bestalde lehenengo eremu publikoak sortzen dira, herri plaza, alegia.



- Lehenengo zabalgunea -

MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA
Eremuaren bilakaera



Uraren gaineko lehenengo eraikuntzak 1890 :

Laredo hiriaren hurrengo garapen nagusia, 1864-an hasten da, Bilbora-ko errepide berria eraikitzen denean (alde zaharra zeharkatuz).

Horrez gain, uraren gaineko lehenengo eraikuntzak agertuko dira, piloteen gainean. Irudian ikusten den eraikina, merkatu plaza izango denaren lehenengo eraikuntzan bilakatuko da.

Merkatu baten sorrera + zabalgunea berria 1903 :

1881. urtean zabalgunerako proiektua onartu zen, itsasoari irabazitako lurretan eraikiko zena. Eredu Burgesa izango zuen zabalgunea sortu zen harresiarekiko paralelo etxadiak sortuz.

1903. urtean Merkatua eta arrantzaleen plaza sortzen da, zabalgunearen lehenengo ilaran bilakatuz eta Menéndez Pelayo kalea eratuz.

Itsasoan lortutako arrantza, kale horretatik zehar merkatura eramaten zan, merkatu ondoan zegoen zelai batean saltzeko asmoarekin "arrantzaleen plaza". Zelai hori, zuzenean hondartzara ematen zuen eta sal-erozketan sortutako hondakinak hondarrera botatzen ziran zuzenean. Merkatu barruan berriz, herri inguruan ematen zen nekazaritza eta frutarboletatik ateratako barazki eta frutak saltzen ziran.



*-Laredo 1903-
Merkatu baten sorrera + zabalgunea berria*

MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA
Eremuaren bilakaera

1898-an Joaquin Rucoba arkitektoa (Laredotarra), merkatu baterako proiektu basikoa aurkeztu du. Garaiko industrializazioari jarraiki, burnizko egitura arin bat proposatzen du merkaturako. 30 m luze eta 22 m zabal duen merkaturak proposatzen du.

Zimentazioa behin egina dagoela, zalaketak egoten dira beste arkitekto batzuen aldetik, haien proiektuak hobek direla aitortuz.


Joaquin Rucoba obra utzi eta Eladio Laredo arkitektoa (Castro Urdiales-ekoa) jarraituko du obra proposamen berri batekin.

Merkatuaren deskribapena:

Rucobak proposatutako burnizko egitura zertxatua mantenduko du, harlanduzko pilastratan deskargatuko direnak. Itxitura ordea, adreilu karabistako horma batekin gauzatu du, bao bakoitzean arku bat irekiz, horrez gain, ornamentazio ekleptiko bat proposatzen du itxiturean: Daniel Zuloagak margotutako zeramikak, hormigoizko akaberak, bao serlianoak... elementu koloretzu guzti hauek deigarri egingo dute merkaturak.

Azkenik, zink-eko markesina bat sostengatuko duten burnizko zutabetxoak filtro moduan egingo dute perimetro osoan barnealdera sartu baino lehen.

Barnealdean, egurrez eginiko "altzari" / banku batzuk erabiliko dira postu bezela. Malgutasuna emango dutenak, barnaldeko eremu diafanoan.



LAREDO-ASÓN SUPLEMENTO SEMANAL. Domingo 4.12.16. DEPOSITO LEGAL. SA. 46-2014.

IMÁGENES E HISTORIAS BALDOMERO BRÍGIDO DOCTOR EN HISTORIA Y DIRECTOR DEL ARCHIVO MUNICIPAL DE LAREDO

Imagen de época de la construcción del mercado municipal de abastos

El mercado de abastos de Laredo (I)

El primer proyecto y la cimentación se remontan al año 1898

El Boletín Oficial de la Provincia de Santander del miércoles 31 de Agosto de 1898 incluye un anuncio oficial, firmado por el alcalde Lucas Marsella, sobre el comienzo de las obras de lo que iba a ser el Mercado de Abastos de la Villa de Laredo y del cual vamos a elegir varios extractos para conocer el complicado arranque de las obras del Mercado de Abastos de la Villa de Laredo.

En el anuncio se dice: «En virtud de lo acordado por el Excmo. Ayuntamiento de esta Villa en la sesión del 26 del corriente mes (agosto), se saca a pública subasta las obras de cimentación y fábrica para construir la plaza del mercado...».

«La subasta se celebrará ante el alcalde o teniente en quien delegue y con asistencia de otro concejal a las once de la mañana del día doce de septiembre próximo en el salón de sesiones de la Casa Consistorial...».

Añadiendo que: «El tipo de la subasta es de ocho mil treinta y dos pesetas y treinta y dos céntimos, que es el importe del presupuesto de gastos formulado por el autor del proyecto el arquitecto Joaquín de Rucoba.»

El laredano Joaquín de Rucoba y Octavio de Toledo había hecho un proyecto en el año 1897 que había sido aprobado por la Corporación Municipal de la Villa de Laredo, donde destacaban los planos sobre los pabellones metálicos, de notable influencia europea, que se debían construir. Y el Ayuntamiento en las condiciones facultativas para su realización dice que «todas las obras se ejecutarán con estricta sujeción a los planos de conjunto y de detalle que se acompañan con las modificaciones acordadas y a cuantas ordenes reciba durante la marcha de los trabajos el arquitecto director (Joaquín de Rucoba) o de sus delegados, quien podrá introducir pequeñas variaciones en los detalles, pero haciéndose el abono de las obras al contratista, por medición de las unidades que resulten, sean más o menos de que el contratista falte a esta condición se le impondrá una multa de cincuenta pesetas por cada día que trascurra del plazo señalado.»

A la licitación de la cimentación, alcantarillado y demás obras a realizar para el comienzo de la nueva plaza de abastos concurren tres licitadores: Ramón Marsal, Rufino Santisteban y Lucas Puncueva.

Tras la adjudicación provisional a Ramón Marsal se producen varias denuncias de los otros dos candidatos al insistir que sus proposiciones son mejores. Incluso el arquitecto Joaquín Rucoba, en un documento de 17 de Septiembre de 1898, nos indica en la documentación histórica que deben adjudicarse las obras a Lucas Puncueva al considerar su propuesta la más adecuada. Sin embargo la corporación municipal decidió dar, definitivamente, las obras a Ramón Marsal.

El día 27 de septiembre de 1898 se redactó el acta de replanteo en la casa consistorial, siendo alcalde Lucas Marsella del Castillo, con Joaquín de Rucoba y Octavio de Toledo como autor del proyecto del mercado y director de las obras y también con el contratista de la cimentación Ramón Marsal Casaña, acompañado de don Ladislao Martínez Iturralde y después de examinar los documentos del proyecto, o sea las condiciones y plano trazado por dicho arquitecto con fecha veintitrés de agosto último, que siguen para la ejecución de las mentadas obras subastadas, el día doce del corriente pasaron al solar de la Calle del Paseo que ha de ocupar el mercado a efectuar el replanteo de las mismas.»


En esta visita se concreta que la planta general ocupada por el pavimento de losetas de Portland del mercado afecta la forma de un rectángulo que tenía los treinta metros de longitud de las fachadas principal y posterior, por los veintidos de las laterales, estando cortados los ángulos que forman dichas fachadas, entre sí, exceptuando la posterior, por chaflanes de tres metros como el contiguo de la casa de Lucas Marsella, de cuya manzana esta separada el mercado por una calle de diez metros de latitud, que corresponde a la actual calle de Eguilior.

Tras la adjudicación se producen denuncias de los otros dos candidatos al insistir que sus proposiciones son mejores»

Para continuar añadiendo que «todas las obras que comprende esta contrata deberán quedar terminadas en el improrrogable plazo de un año contando desde el día en que se verifique la misma y en el caso de que el contratista falte a esta condición se le impondrá una


-Filtradaren filtroak-

“mercado de Abastos”



Zink-eko markesina + fundiziozko zutabetxoak arku irekiak


-Postuak-



Malguak

2. arkitektura bat arkitekturren barnean: “altzariak”

-Idiograma-



1903
Joaquin Rucoba eta Eladio Laredo


MENÉNDEZ PELAYO KALEA ETA MERKATU PLAZA
Eremuaren bilakaera

1914. urtean, Udaletxeak merkatu birgaitzeko deialdia egiten du eta Emilio Torrienteren proiektua aurrera ateratzen da.

Bere proposamena nagusiki aldatuko du merkaturaren estetika, funtzionamendua eta proportzioa. Merkatuko gorputz zentrala inguratzen zuen zink-ezko markesina tradizionala kendu eta gorputz berri bat eraikiko du perimetroan, barnekaldetik postuetarako sarrera eukiko duena.

Gorputz berri hau, itxura oso trinkoa emango dio eraikinari, teilazko estalkia eta harizko blokeez garatuko itxitura izango duena. Horrez gain, lehiateen tamaina txikitzen da, argiztapen kantitate handia galduz.

Plazarekiko harremana guztiz aldatu da, eraikin ermetiko eta isolatua bilakatzen da, plazarekiko harremanik ez duena.



